



## GOBERNU BATZARRA

2022.06.07

- Alkatea:**  
Olatz Peon Ormazabal
- Bertaratutako zinegotziak:**  
Xabier Balerdi Tolosa  
Xarles Iturbe Pasaban  
Begoña Tolosa Mendia
- Ez da bertaratu:**  
Patxi Amantegi Zubiria  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria
- Idazkaria:**  
Begoña Garmendia Vazquez
- Kontuhartzaile akzidentala:**  
Paulino Alonso Eraso
- Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko ekainaren zazpian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:
1. Akta hau onartzea: 2022ko maiatzaren 31koa.
  2. Onartzea Udaleko diruzain lanpostua betetzeko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikoak.
  3. Hasierako onespena ematea «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizazio-proiektuari.
  4. Presakotzat jotzea eta onartzea Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak eta hobekuntzak egiteko zerbitzuaren kontratua, eta hasiera ematea lizitazioari.
  5. Tolosako Zezen plaza egokitzeko 4. faseari dagozkion obren kontratua adjudikatzea.
  6. Dekretu hauen berri ematea:  
2022/1707 Dekretua: 2022/13 eta 2022/14 faktura zerrendak.

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO MAIATZAREN 31KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko maiatzaren 31n egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



## **2. ONARTZEA UDALEKO DIRUZAIN LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETA ARRUNTAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

Tolosako Udalak hutsik du momentu honetan Estaturako gaikuntza duen lanpostu bat, hain zuzen ere, diruzain lanpostua.

Hala, legeak ezarritakoaren baitan, lanpostu hori lehiaketa bidez hornitzen da urtean bitan (lehiaketa arruntaren zein bateratuaren bidez) eta hori izapidetzeko eskuduntza Foru Aldundiak du.

Hala, Aldundiak bidalitako idatziaren arabera, aipatutako gaikuntza duten Toki Administrazioako funtzionarioen lehiaketa arrunta ateratzeko, Udalari eskatu dio merezimenduak baloratuko dituzten oinarriak igortzeko. Udalak, bere aldetik, plaza horren oinarri espezifikoak onartzeko proposamena egin du.

Ikusirik aurrekari horiek, legeak emandako eskumenak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Onartzea Udaleko diruzain lanpostua betetzeko oinarri espezifikoak, Estaturako gaikuntza duten Toki Administrazioako funtzionarioen lehiaketa arruntaren deialdian parte hartzeko (oinarri horiek eranskin gisa atxikitzen dira).

**BIGARRENIK.-** Oinarriak Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.

## **3. HASIERAKO ONESPENA EMATEA «13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37» AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO-PROIEKTUARI.**

<b>Esparrua:</b>	13. Laskoain
<b>Azpiesparrua:</b>	13.1 San Frantzisko pasealekua 37
<b>Eskatzailea:</b>	Jaitzubia Barri, SL (ordezkaria: Oihana Miren Urruticoechea García)
<b>Sarrera data:</b>	2022/04/06 (2022-4382 zk.)
<b>Espedientea:</b>	2022H1220001
<b>Lotutako espedienteak:</b>	2021H1070002 - Xehetasun azterlana. Behin betiko onespena: 2022/01/27an Udalbatzak. 2021H1130003 - UJP. Behin betiko onespena: 2022/05/24an



TGBk.  
2021H1140002 - UJP egikaritzeko hirigintza hitzarmena. Behin  
betiko onespena: 2022/05/24an TGBk.

Dokumentua	AURREKARIAK Data/Zk.	Oharrak
Urbanizazio-proiektua	2022/04/06	
Zerbitzuen txostenak:		
1. Gipuzkoako Urak	Eskaera: 2022/04/25 Txostena: 2022/05/16	Aldekoa, baldintzekin
2. Tolargi	Eskaera: 2022/04/25 Txostena: 2022/05/04	Aldekoa
3. Gureak zerbitzuak	Eskaera: 2022/04/25 Txostena: 2022/05/09	Aldekoa, baldintzekin
4. Nortegas	Eskaera: 2022/04/25 Erantzuna: 2022/04/29	Aldekoa, baldintzekin
5. Tolosaldeako mankomunitatea	Eskaera: 2022/04/25	Ez da erantzunik jaso
6. Tolosagasa	Eskaera: 2022/05/18 Txostena: 2022/05/18	Aldekoa
Txosten teknikoa (AE22020)	2022/05/23	Aldekoa, baldintzekin
Txosten teknikoa (AM22007)	2022/05/30	Aldekoa, baldintzekin
Txosten teknikoa (IG2022045)	2022/06/01	Aldekoa, baldintzekin

## **2. UDAL INGENIARI TEKNIKOAREN 2022KO MAIATZAREN 23KO TXOSTENAK (AE22020), LABURBILDUZ, HONAKO HAU DIO:**

### **“(…) TXOSTENA**

Txosten honen helburua da «13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37» azpiesparruko urbanizazio proiektua aztertzea. Horretarako, aurkeztutako azken agirian aztertuko da urbanizatzeko jarduketa-programaren behin betiko onespenerako ezarritako baldintzak jaso diren, eta proiektuaren edukia aztertuko da Udal zerbitzuetako arduradunek eginiko ekarpenak aintzakotzat hartuta.

Horrela, bide batez, urbanizazio proiektuak behin behineko onarpena jaso dezakeen aztertuko da, zerbitzuen, hiri-altzarien eta lurzoruen zehaztapenak aintzakotzat hartuta.

Baldintzen laburpena:

### **1-Urbanizatzeko jarduketa-programan jasotako baldintzak:**



“Se ha presentado el anteproyecto de urbanización como documento nº2. El Ingeniero Técnico de Obras Públicas del Ayuntamiento emitió el informe relativo al anteproyecto de urbanización el 21 de octubre de 2021. El informe concluía lo siguiente:

“Para la aprobación inicial, se deberá presentar el documento subsanado que incluya las siguientes modificaciones:

*1. Red de saneamiento:* Se deberá realizar una única conexión a la red de pluviales en el colector del paseo San Francisco, desde un único punto en el que previamente deberán conectarse los distintos ramales. Asimismo, se deberá realizar una única conexión a la red de aguas residuales en el Paseo San Francisco. El trazado de las conducciones podrá trasladarse al límite noroeste para evitar que coincida con el forjado de los garajes.

*2. Red de energía eléctrica:* Deberá ajustarse a las especificaciones del artículo 12 de las Ordenanzas Municipales de Urbanización, edificación y protección ambiental, paisajística y naturalística y a las prescripciones técnicas establecidas por la empresa distribuidora (Tolargi, S.L.). Para ello, entre otras condiciones, el solicitante deberá reservar un local, para su posterior utilización por la empresa distribuidora. Este local será cerrado y adaptado, con fácil acceso desde la vía pública.

*3. Red de gas:* El trazado de la red deberá ajustarse a las indicaciones de Tolosagasa y se concretará la profundidad de las canalizaciones.”

2022ko urtarrilak 31n Hirigintzako buruak bere txostenean honako hau jaso zuen:

“El anteproyecto presentado cumple con el contenido definido en el artículo 153 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y ha incorporado las modificaciones solicitadas por el ingeniero municipal.”

Beraz, hori ontzat emanda, ondoren, zerbitzu bakoitzeko arduradunak igorritako ekarpenak aztertuko ditut:

**2-Urbanizatzeko azpiegituren azterketa:**

Ur-hornidura

Ur beltzen sarea

Euri uren sarea

Telekomunikazio sarea

Argiteria publikoa

Lorezaintza

Gasa

Tolosaldeko Mankomunitatea

**Ur-hornidura:**

2022ko maiatzaren 16an jaso zen erantzuna Tolosako Udaleko erregistro elektronikoa.

Ordezkarriak adierazi du baliabide nahikoak daudela, hauxe da eurak idatzitakoa:



*“Baliabideak: Dagoeneko finkatuta dagoen lurzorua gainera urbanizazioa denez, ez da aurreikusten eskariak aldatzea. Tolosako udalerria Ibiur EUTEtik hornitzen da, eta horrek, aldi berean, ura hartzen du Ibiur urtegitik, 7,6 hm<sup>3</sup>-ko edukiera nominalarekin. Urtegiak eskatutako bolumena hornitzeko behar adinako biltegiatze-ahalmena du, eta Ibiurreko EUTEaren tratamendu-ahalmenak tratatutako uraren hornidura bermatzen du.*

*Azpiegiturak: Gipuzkoako Urak-ek jakinarazi du eremuan azpiegitura nahikoak daudela aurreikusitako , garapenerako.”*

Idatziak ez du aipatzen sarearen inguruan zuzenketarik. Batetik, sareak baliabide nahikoak dituela dio, eta, bestetik, eremuan dauden azpiegiturak nahikoak direla proiektuak garatutako beharretako. Ez du proiektua aztertu. Hala ere, irizpide orokorrak ematen ditu ureztatze-ahok eta hidranteak kokatzeko, honako hauek dira irizpideak :

*“...Ureztatze-ahok: Ureztatze-aho guztiek kontagailua izango dute eta hauen zenbatekoa zein kokapena Tolosako Udalak onartuak izan beharko dira....”*

*...Sute-ahok: Instalatu beharreko sute-ahoen zenbatekoa, modeloa eta kokapena Tolosako Udalak onartuak izan beharko dira...”*

Proiektuan kale garbiketa lanak eta ureztatze lanak bermatzeko ur-aho bat jartzea komeni da. Kontsorzioak eskatutako ur kontagailua duena.

Bestalde, hidranteei dagokienez, eremu mugan jada bada bat. Hala ere, eremuan beharrezkoa denaren justifikazioa gehitu beharko litzateke.

Zerbitzuen arteko koordinazio zanja eta mantendu beharreko gutxieneko distantziak bermatzen direla justifikatu behar da. Betebehar hau zerbitzu guztietan aintzakotzat hartu behar denez, ondoren ohar orokorretan jasoko da.

#### Ur beltzen sarea:

2022ko maiatzaren 16an jaso zen zerbitzu arduradunaren erantzuna Tolosako Udako erregistro elektronikoan. Honako hau da erantzuna:

*“Baliabideak: isurketa-emaria hornidura-emariaren antzekoa izango da. Hipotesi horren arabera, garapen berritik datozen hondakin-urak arazteko baliabide nahikoak daudela kontsideratzen da, izan ere, Uraldeko HUAra bideratu nahi dira eta honek isurketa horiek tratatzeko ahalmen nahikoa du.*

*Azpiegiturak: Gipuzkoako Urak-ek jakinarazi du eremuan azpiegitura nahikoak daudela aurreikusitako garapenerako.*

Idatziak ez du aipatzen sarearen inguruan zuzenketarik. Batetik, sareak baliabide nahikoak dituela dio, eta, bestetik, eremuan dauden azpiegiturak nahikoak direla proiektuak garatutako beharretako. Ez du proiektua aztertu. Hala ere, irizpide orokorrak ematen ditu , honako hauek dira irizpideak :



### “GOMENDIO ETA GIDALERRO OROKORRAK

- Saneamendua modu berezian proiektatuko da obra-eremu osoan.
- Egungo sarearekin aurreikusitako konexio-puntuak adierazi beharko dira.
- Hornidura-saretik ez datozen urak, hala nola drainatzeak, ezin izango dira saneamendu fekaleko sarera konektatu.
- Egungo sare unitarioak sare berezile bihurtzeko jarduerak bultzatu beharko dira.

Aipatutako Kontsorzioaren gomendio eta gidalerro orokorrak betetzen ditu aurkeztutako proiektuak.

#### Euri uren sarea:

Proiektuan saretan eta kanaletaren ezaugarriak bereziki zaindu behar dira. Udalak, maiz, arazoak ditu elementu horiek mantentzeko. Batetik, lurra garbitzeko makinek pisu handia dutelako gainazal txikian banatuta, eta horrek, saretan eta kanaletan hondoratzea eragin ohi du. Hori dela eta, saretaren materiala eta obrako exekuzioa bereziki zaindu behar dira, beharrezkoa bada zarpa sistemen bitartez elementuak indartuz. Edozein dela ere aukeratutako sistema arazo hori saihestuko duela bermatu behar du. Bestetik, saretan eta kanaletan sistemak garbiketa arazoak eman ohi ditu. Hori kontuan hartuta, hartunetan garbiketa ahalbidetuko duten kutxatila egitea proposatzen da.

Proposatutako sarean ikus daiteke bi hartune sare orokorraren norabidearen kontra marraztu direla. Huste ahalmenari ez eragiteko, norabidea berdinean jartzea proposatzen da edo kutxatilan nahiko kosta aldea sortzea urak husteko eragozpenik izan ez dezan.

Eremuko euri urek, alde batetik plazakoak eta bestetik eraikinetakoak sortutako ur emarien justifikazioa gehitzea eskatzen da, eta horien araberako hodi eta saretan jartzea. Ur emari horiekin hodian eta kanaletaren huste ahalmena bat datorrela aztertu behar da.

#### Telekomunikazio sarea

Ez da proposamenean eragozpenik ikusi.

#### Argi indarra:

2022ko maiatzaren 4an Tolargiko ordezkariak, Juan Carlos Ugartek, jasotako proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

*“Por medio de este escrito se informa favorablemente la propuesta realizada. Han incluido la solicitud de Tolargi de instalar un centro de transformación en los bajos de un edificio y la interconexión de las canalizaciones con las redes de media y baja tensión existentes como se les ha solicitado.”*

#### Argiteri publikoa:



Momentuz txostena jaso ez den arren, argiteriaren arduraduna eta sustatzailea lanean ari dira jasotako proposamena egokitzeko. Ondoren, zuzendu beharreko puntuak laburbildu dira:

-Argi puntuen ezaugarriak inguruan jarritako ereduen berdinak edo antzeko ezaugarriak dituztenak jartzea (eremuan eginiko azkeneko urbanizazio lanak San Frantzisko 39ren aurrean egin dira).

-Argiaren azterketa zuzentzeko neurriak hartzea 1890/2008 Errege Dekretua bete dadin. Besteak beste, argi puntuen arteko distantzia egokitu eta puntu bakoitzaren ezaugarriak proposatutakoetara egokitzea.

Arduradunak azpimarratu du, kontuan hartzea komeni dela San Frantzisko 35 zenbakiko ordezkariak eginiko proposamena. Ordezkariak, gaur egun, argi puntu bat euren eraikineko balkoi batetik 60cm-ra dagoela adierazi dute. Horri konponbidea emateko argiteriaren arduradunak San Frantzisko 37 eta 35 mugatzen dituen puntuan bi buru dituen argi puntua jartzea proposatu du zutabe bakarrean. Horrela, garaiera handieneko buruak errepidea argiztatu dezake, eta besteak parkea.

#### Lorzaintza:

2022ko maiatzaren 9an Lorzaintzako arduradunak honakoa hau adierazi du:

*“En el apartado de las jardineras movibles especifica que se plantarán árboles autoctonos.*

*Desconocemos la capacidad de las jardineras ya que no están descritas. Por lo que lo importante es que las plantas que se planten se adapten a las jardineras y vivan el mayor tiempo posible ( Las plantas en jardineras estarán siempre limitadas) por lo que no es importante si son autóctonos o no si no que su resistencia en jardineras sea buena.*

*Otra cuestión son las medidas del alcorque de los árboles en el que especifica serán de 80x80 cm En los alcorques anteriores la medida en superficie es de 1x1 m y en los siguientes 1,20x1,20 por lo que al menos deberán ser de 1x1 para que tenga una línea parecida todo el paseo.*

*Arbolado: Para una transición ordenada se plantarán en el paseo Arces “Pacific Sunset” cuyo perímetro será 14/16*

*En el paseo San Francisco venimos con una alineación de Arces y acabamos con otra especie de Arces.*

*Los árboles entre edificios serán de poco crecimiento Acer palmatum “Seyru” o similar”*

Ondorioz, lorezaintza arduradunaren ekarpenak aintzakotzat hartzeko proiektuan 1x1 m gutxieneko neurria duten loreontziak jarri beharko dira, landareek gutxieneko espazioa izan dezaten. Arduradunak esan bezala espeziea definitzeko askatasuna eskaintza da, beti ere, eremuak duen helburua ahaztu gabe. Hau da, egonaldi lasaiak sustatu nahi dituen eremua. Beraz, mantenu eta itzal egokia izan dezakeen mota aurreikustea komeni da.





Bestalde, inguruko elementuen arteko lotura mantentzeko txorkoen tamainak, gutxienez, 1x1 metrokoa izan behar du.

Bukatzeko, ibilbideko zuhaitz motei dagokienez eta horien arteko trantsizio ordenatua egiteko, proposatzen da pasealekuan *Acer* motakoak landatzea, *Sunset* motakoak pasealekuan, eta 14/16 perimetroa dutenak, eta eraikinen artean *Acer palmatum Seyru* motakoa edo antzeko ezaugarriak dituenak.

Gasa:

2022ko maiatzaren 20an Tolosagasako ordezkariak, Alberto Gonzalez Gonzalezek, jakinarazi zuen bere txostenean egokia dela proiektuan proposatutako gas sarea.

Mankomunitatea:

**Ez du txostenik igorri.**

Zerbitzuen arteko koordinazioa:

Urbanizazio honetan garrantzi berezia du zerbitzuen arteko gutxiengo distantzia eta ordena errespetatzeak. Bi arrazoi nagusi daude horretarako: lehenengoa, lur azpiko garajearen eta urbanizazio bukatuaren arteko distantzia aldakor eta mugatua, eta bigarrena, San Frantzisko 35 zenbakiko garaje sarrera handitzeko aukera.

Nahiz eta garajearen definizioa ez den urbanizazio proiektuan jaso, etxebizitzako proiektuan jasoko da. Eraikitzeko momentuan etxeak eraikitzen hasi aurretik garajea eta zerbitzuak bukatu behar dira. Hori dela eta, koordinazio zangetan kontuan hartu beharrekoa da garajearen eragina distantziak aztertzeke unean.

Arazoak saihesteko, koordinazio zangak jaso behar ditu proiektuak. Hauek zerbitzuen arteko gutxiengo distantziak mantenduta diseinatu behar dira, zerbitzuen arloko arautegiak kontuan hartu direla adierazita, eta zerbitzua eta urbanizazio sestraren arteko gutxiengo kota uneoro mantentzen dela bermatu behar dute.

Azterketa horretarako koordinazio zanga marraztu beharko da zerbitzuen multzokatzea edo antolaera aldatzen den heinean.

**2-Urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak**

o **Materialak:**

-Plazan egoteko sortu nahi den espazioak definizio zehatzagoa eskatzen du. Planoetan eta memorian datozenak ez datoz bat. Beraz, gehiago garatu behar du proiektuak arlo hau.

Gainera, aintzakotzat hartu behar da eremu publikoan lur azpiko garajeko arrapalak edukiko duen eragina. Plazan sortutako malda erabilgarri izan dadin, hor erabilitako altzariak espazio hori plazarako berreskuragarri egin beharko lukete.

-San Frantzisko 35 zenbakiko atariko sarrera eta urbanizazio berriko lotura aztertzea komeni da. Bai argiteriari dagokionez, bai eremu pribatu eta publikoaren loturari dagokionez.





○ **Eraikuntza soluzioak**

-Urbanizazio lanak hasi aurretik gaur egungo eraikina eraitsi behar da. Proiektuak 12. eranskinean eraipen proiektua jaso du. Agiri horrek aparteko azterketa eskatzen duela uste dut.

-Plaza azpiaren zati batean lur azpiko garajeak mugatuko du gainkargaren arabera plazaren erabilpena. Hori dela eta, urbanizazio proiektuak erabilpen gainkarga eta mugatutako eremua jasotzea komeni da.

**3-Eraikitze datak eta prozesua**

Urbanizazio lanak gauzatzeko 4 hilabeteko epea aurreikusi dute. Aldez aurretik, gaur egungo eraikina eraitsi behar da, eta horretarako 2 aste beharko dituztela adierazi dute.

Eraikitze prozeduran ezinbestekoa da, urbanizazioa eraikitzen hasi aurretik, lur azpiko garajea eraikitzen hastea. Atal hori eraikinen lizentziari lotua dago.

**4- Aurrekontuaren laburpena**

PROY URB "SUBÁMBITO 13.1 PASEO S FRANCISCO 37 AAINº7" PGOU TOL

Capítulo	Importe
1 ACTUACIONES PREVIAS Y DEMOLICIONES .....	5.997,29
2 MOVIMIENTO DE TIERRAS .....	5.409,24
3 RED DE SANEAMIENTO	
3.1 CANALIZACIÓN .....	13.736,66
3.2 POZOS Y SUMIDEROS .....	15.957,15
<b>Total 3 RED DE SANEAMIENTO .....</b>	<b>29.693,81</b>
4 RED DE ABASTECIMIENTO	
4.1 CANALIZACIÓN .....	826,23
4.2 TUBERIAS .....	963,65
4.3 MECANISMOS .....	1.213,15
4.4 ARQUETAS DE REGISTRO .....	247,00
4.5 REPOSICIONES .....	123,06
<b>Total 4 RED DE ABASTECIMIENTO .....</b>	<b>3.373,09</b>
5 RED DE ALUMBRADO	
5.1 CANALIZACIÓN Y ARQUETAS .....	2.102,02
5.2 INSTALACIÓN LUMINARIAS .....	10.813,82
<b>Total 5 RED DE ALUMBRADO .....</b>	<b>12.915,84</b>
6 RED ELECTRICIDAD	
6.1 MEDIA TENSIÓN .....	3.664,65
6.2 BAJA TENSIÓN ACOMETIDAS .....	5.303,41
6.3 BAJA TENSIÓN CONEXIÓN RED ACTUAL .....	5.131,58
<b>Total 6 RED ELECTRICIDAD .....</b>	<b>14.099,64</b>
7 RED DE TELECOMUNICACIONES .....	3.544,48
8 RED GAS .....	4.212,91
9 FIRMES Y PAVIMENTOS .....	71.366,49
10 JARDINERÍA .....	6.478,97
11 MOBILIARIO URBANO .....	10.140,56
12 SEÑALIZACIÓN	
12.1 SEÑALIZACIÓN VERTICAL .....	161,70
12.2 SEÑALIZACIÓN HORIZONTAL .....	65,40
<b>Total 12 SEÑALIZACIÓN .....</b>	<b>227,10</b>
13 CONTROL DE CALIDAD	
13.1 MATERIALES GRANULARES .....	462,31
13.2 MEZCLA BITUMINOSA EN CALIENTE .....	118,60
13.3 HORMIGONES .....	326,02
13.4 BALDOSAS Y APLACADOS .....	701,44
<b>Total 13 CONTROL DE CALIDAD .....</b>	<b>1.608,37</b>
14 GESTIÓN DE RESIDUOS .....	10.611,33
15 SEGURIDAD Y SALUD .....	3.618,83
16 DEMOLICIÓN DE EDIFICIO .....	141.176,47
<b>Presupuesto de ejecución material</b>	<b>324.474,42</b>
13% de gastos generales	42.181,67
6% de beneficio industrial	19.468,47
<b>Suma</b>	<b>386.124,56</b>
F 21% IVA	81.086,16
<b>Presupuesto de ejecución por contrata</b>	<b>467.210,72</b>



## ONDORIOZTAPENA

Aurreko ataletan azaldutakoaren arabera, proiektuak hainbat arlo aztertzeke ditu. Horiek beste administrazioek egin behar dituzten azterketei ez dietela eragingo uste dut. Beraz, **aldeko txostena egiten da**, eta aldi berean, zuzenketak egiteko eskatzen da.

**LEHENA.-** Urbanizazio proiektua onartzeko, alde zaurretik 12. eranskina aztertu behar da (eraikinaren eraispena).

**BIGARRENA.-** Zuzenketak egitea ur-hornidura sarean:

-Ur-aho bat jartzea kale garbiketa lanak eta ureztatze lanak bermatzeko, Kontsorzioak eskatutako ur kontagailua duena.

-Hidrantearen arauen arabeko justifikazioa.

**HIRUGARRENA.-** Zuzenketak egitea euri-uren sarean:

-Sareten eta kanaletaren ezaugarri egokiak aukeratzea. Udalak, maiz, arazoak ditu elementu horiek mantentzeko. Batetik, lurra garbitzeko makinek pisu handia dutelako gainazal txikian banatuta, eta horrek, sareta eta kanaletak hondoratzea eragin ohi du. Hori dela eta, sareten materiala eta obrako exekuzioa bereziki zaindu behar dira, beharrezkoa bada zarpa sistemen bitartez elementuak indartuz. Edozein dela ere aukeratutako sistema, arazo hori saihestuko duela bermatu behar du.

-Sareta eta kanaleta sistemak garbiketa arazoak eman ohi ditu. Hori kontuan hartuta, hartuneetan garbiketa ahalbidetuko duten kutxatilkak egitea.

-Zuzentzea kontrako bidean marraztutako bi hartuneak. Huste ahalmenari ez eragiteko norabidea berdinean jartzea proposatzen da edo kutxatilan kotaren aldea nahikoa sortzea urak husteko eragozpenik izan ez dezan.

-Ur emarien justifikazioa proiektuan jasotzea. Eremuko euri urek, alde batetik plazakoak eta bestetik eraikinetakoak sortutakoak eta horien arabeko hodi eta sareta justifikatzea (ur emari horiekin hodian eta kanaletaren huste ahalmena bat datorrela aztertu behar da).

**LAUGARRENA.-** Zuzenketak egitea argiteria sarean:

-Argi puntuen ezaugarriek inguruan jarritako eredu berdinak edo antzekoak behar dute izan (eremuan eginiko azkeneko urbanizazio lanak San Frantzisko 39.aren aurrean egin dira).

-Argiaren azterketa zuzentzeko neurriak hartu behar dira 1890/2008 Errege Dekretua bete dadin (besteak beste, argi puntuen arteko distantzia egokitu eta puntu bakoitzaren ezaugarriak proposatutakoetara egokitzea).

-Argi puntuen banaketan kontuan hartzea San Frantzisko 35 zenbakiko ordezkariak eginiko proposamena.

**BOSGARRENA.-** Zuzenketak egitea lorazaintzan:

-Gutxienez 1x1 m duten loreontziak jartzea.



- Espeziea definitzean, mantenu eta itzal egokia izan dezakeen mota aukeratzea.
- Txorkoen tamainak gutxienez 1x1 metrokoa izan behar du.
- Pasealekuan *Acer* motakoak aukeratzea, *Sunset* motatakoak pasealekuan, eta 14/16 perimetroa dutenak, eta eraikinen artean *Acer palmatum Seyru* motakoa edo antzeko ezaugarriak dituenak.

**SEIGARRENA.-** Aztertzea zerbitzuen arteko koordinazioa:

-Koordinazio zangen ebakidura profilak marraztea, bertan adierazita bertikalean zerbitzu motaren arabera jarraitu beharreko ordena eta gutxienerako distantziak: lurzoruarekiko, beste zerbitzuekiko, azterketa horretarako koordinazio zanga marraztu beharko da zerbitzuen multzokatzea edo disposizioa aldatzen den neurrian.

Urbanizazio honetan garrantzi berezia du zerbitzuen arteko gutxiengo distantzia eta ordena errespetatzea. Bi arrazoi nagusi daude horretarako: lehenengoa, lur azpiko garajearen eta urbanizazio bukatuaren arteko distantzia aldakor eta mugatua, eta bigarrena, San Frantzisko 35 zenbakiko garaje sarrera handitzeko aukera.

Nahiz eta garajearen definizioa ez den urbanizazio proiektuan jaso, etxebizitzako proiektuan jasoko da, eraikitzeko momentuan etxeak eraikitzen hasi aurretik garajea eta zerbitzuak bukatu behar dira. Hori dela eta, koordinazio zangetan kontuan hartu beharreko da garajearen eragina distantziak aztertzeko unean.

**ZAZPIGARRENA.-** Aztertzea jarraian jasotzen diren urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak.

o Materialak:

- Plazan egoteko sortu nahi den espazioak definizioa zehaztea.
- Garajeko arrapalak eremu publikoan edukiko duen eragina indargabetzea. Sortutako malda erabilgarri izan dadin, hor erabilitako altzariak espazio hori plazarako berreskuratu behar dute.
- San Frantzisko 35 zenbakiko atariko sarrera eta urbanizazio berriko lotura aztertu behar da.

o Eraikuntza soluzioak:

o

-Urbanizazio proiektuak erabilpen gainkarga eta mugatutako eremua jasotzea komeni da».


3. **UDAL INGENIARIAREN 2022KO MAIATZAREN 30EKO TXOSTENAK (AM22007),  
LABURBILDUZ, HONAKO HAU DIO:**

“(…) **AZTERKETA TEKNIKOA:**

Argiztapen-Azterketa: Erregistro bidez ez dute argiztapen-azterketarik aurkeztu. Sustatzailearekin zenbait hartu-eman izan ondoren argiztapen proposamen berri bat osatu dute eta dagokion argiztapen-azterketa posta bidez jaso dugu, I eranskinean azatzen dena. Proposamen horretan azaltzen diren luminaria modeloak eta kopuruak egokitzat jo dira.



Kanalizazioak: Planoetan proposatzen dituzten 3 kanalizazio berriez gain beste 2 kanalizazio berri gehitzea proposatzen da, existitzen diren argiteria publikoko zenbait zirkuitu elkarrekin lotu ahal izateko, beheko irudian berdez azaltzen direnak. 1. kanalizazio berria existitzen diren kutxatilik lotuz egingo da, 2. kanalizazioarentzat, ordea, kutxatila berriak instalatu beharko dira. Horietaz gain, behean urdinez adierazitako gaur egungo kanalizazioa (3) guztiz berritu beharko da REBT jarraituz.



Kanalizazioen ezaugarriak: REBT betetzeko, lurreko eroalea isolamendurik gabea denean, gutxienez 2 tubo instalatu behar dira (1 lur eroalearentzat eta 1 eroale isolatuarentzat). Tolosan erreserbako tuboak uzteko joera dagoenez, kanalizazioak 3 tubokoak izatea eskatuko da.

Aurrekontua: Aurrekontuan adierazten diren luminarien modeloak ez dira egokiak, deskribapenak zuzendu egin behar dira SF 39-41 ingurunearekin bat etor daitezzen. Era berean, kanalizazioei dagokien partida zuzendu beharko da proposamen berrira egokitu dadin (neurketa berriekin).

**PROPOSAMENA**

Urbanizazio proiektuaren argiteria publikoaren atalari behin-behineko onspena ematea, beti ere azterketa teknikoan adierazitako aldaketa eta zuzenketak kontuan hartzeko baldintzapean».

ESKUE2309947-d2ea-48da-8901-7adcd34330ad



4. **UDAL ARKITEKTOAREN 2022KO EKAINAREN 1EKO TXOSTENAK (IG2022045),  
LABURBILDUZ, HONAKO HAU DIO:**

“(…)

### **3. TXOSTENA**

#### **3.1 TXOSTENAREN XEDEA**

Txosten honen xedea da San Frantzisko pasealekua 37ko eraikinaren eraisketa proiektua aztertzea, Urbanizazio Proiektuaren eranskin gisa aurkeztu dena.

#### **3.2 AGIRIEN AZTERKETA**

##### **3.2.1 PROIEKTUA**

Villa Sagrado Corazón, San Frantzisko pasealekua 37ko eraikinaren eraispin proiektua Jon Urrutikoetxea Garcia arkitektoak sinatuta dago, eta ez dago EHAEOak sinatua.

- Proiektuko dokumentuak:
  - 1- Memoria
    - A.1 Eranskina: Fitxa Teknikoak
    - A.2 Eranskina: Osasun eta Segurtasun Azterketa
    - A.3 Eranskina. Hondakin Kudeaketa Azterketa
  - 2- Planoak
  - 3- Baldintza Plegua
  - 4- Aurrekontua

Eraikuntzaren ordenazioari buruzko 38/1999 legearen 2. artikulua xedatutakoaren arabera, gauzatuko diren obrak eraikuntza-obrak dira eta teknikari eskudunak sinatutako proiektua behar dute. 1000/2010 Errege Dekretuko 2. artikulua arabera, proiektuak elkargoak ikus-onetsia egon behar du.

Hartara, aurkeztutako agiriak nahikoa dira eskaera aztertzeko, baina ikus-onetsitakoa aurkeztu beharko dute.

##### **3.2.2 UR AGENTZIAREN ALDEZ AURRETIKO BAIMENA**

San Frantzisko 37ko eraikina Oria ibaitik 100 m baino gutxiagora dago; hau da, polizia gunean, eta uholde-arriskua duen gune batean. Eraispin proiektua, «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» (azpi)esparruaren Urbanizazio Proiektuko parte da. Urbanizazio proiektuan jasota dago, Xehetasun Azterketan Uraren Euskal Agentziak jarritako baldintzak betetzen direla erakusten duen justifikazioa. Hala ere, Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onespina jaso aurretik, eraisketaren Ur- Agentziaren baimena lortu beharko da.

#### **3.3 UDAL PLANEAMENDUA**

##### **«13. LASKOAIN» HIRI ESPARRUKO ARAU PARTIKULARRAK**

San Frantzisko pasealekua 37 eraikina Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra «13. Laskoain» esparruan eta «13.1. San Frantzisko pasealekua, 37» (azpi)esparruan kokatzen du.





«13.1. San Frantzisko pasealekua, 37» (azpi)esparrua hiri lurzoru finkatu gabea da, urbanizazioaren gabezia eta/edo urritasunagatik.

Arau partikularretako 4. GRAFIKOAN, San Frantzisko pasealekua 37 eraikina antolamenduz kanpoko eraikina dela jasotzen da, baita lursailean dauden beste bi eraikin gehigarri ere.

13. LASKOAIN  
**13.1 PASEO SAN FRANCISCO 37**



ESCALA 1/1000 ESKALA

JARDUN INTEGRATU ESPARRUA 10 Zb.		AMBITO DE ACTUACIÓN INTEGRADA N° 10
ANTOLAMENDUZ KANPOKO ERAIKINAK		EDIFICIOS FUERA DE ORDENACIÓN

Horren harira, IV HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUKO atalean ondorengoa aipatzen da:

«13.1 S. Frantzisko pasealekua, 37» (azpi)esparruan aurreikusten den eraikuntza berriaren fatxaden formalizazio arkitektonikoan, ordezkatu beharreko egungo eraikuntzaren fatxadek duten konposizio-ezaugarriak eta estilo-ezaugarriak hartuko dira kontuan, eta kokatzen deneko hiri-ingurunearekin harmonizatzeko irizpideak hartuko dira aintzat.

Dena den, VI ERAIKUNTZAK ETA/EDO ELEMENTU BEREZIAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK atalean honako hau jasotzen da:




TOLOSAKO  
UDALA

2022IGBA0014

—Horrez gain, eta aditzera emandakoaren ildotik, bidezkoa irizten den guztietan, San Frantzisko Pasealekuko 37 zenbakiko eraikineko fatxadak mantendu eta zainduko dira, betiere bertan proiektatutako eraikuntza-garapen berriarekin bateragarria bada.

Gauzak horrela, udal teknikarien aldetik uneoro San Frantzisko pasealekuko 37 eraikinaren egungo fatxadak mantentzearen alde egin da, baina ezin da horretara derrigortu, besteak beste, ez dagoelako katalogatuta eta arau partikularrek ordenazioz kanpo izendatzen dutelako.

Egungo eraikinaren balioaren adierazle da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHAEOK argitaratutako Gipuzkoako (1850-1960) Arkitektura gidan sartua dagoela. Bertan ez da eraikinaren data zehatzik, ez eta egilerik jasotzen.



### **3.4 PROIEKTUAREN AZTERKETA**

Aurkeztutako eraisketa proiektuaren arabera, eraipen lanetan, San Frantzisko pasealekua 37 eraikina eraistez gain, lursailean dagoen kotxe-tokia eta lanabesetarako txabola ere eraistea aurreikusten da, lursailaren itxitura horma eta zenbait zoladurekin batera. Eraitsiko diren elementuen ezaugarriak:

Lursaila:

- 1.500 m<sup>2</sup> inguruko azalera du.





- Perimetroan 1,5 m eta 2 m arteko harlangaitzezko pareta du. Fatxada nagusian, atea eta forjazko burdin sareak dauzka. Perimetro hau mantendu egingo da, eta «13.1. San Frantzisko pasealekua, 37» (azpi)esparruaren garapenak egokien kontsideratzen den unean eraitsiko da.
- Orubean dauden zoladura ezberdinak ere eraitsiko dira.

San Frantzisko pasealekua 37 eraikina, Villa Sagrado Corazón

- 225 m<sup>2</sup>-ko okupazioa. (15,2 m zabalera eta 13,55 m sakonera + begiratokia)
- Solairuak: Sotoa, behe oina eta bi oin altu.
- Azalera eraikia: 900 m<sup>2</sup>
- Bolumena: 2.700 m<sup>3</sup>
- Estalkia: Hiru isurikoa, txapituladuna.
- Izan dituen erabilerak:
  - San Bizente Paulekoaren Karitateko alaben antzinako egoitza erlijioso.
  - Erruki Etxea
  - Gurutze gorriko egoitza, duela urte gutxira arte.
- Egitura: 70-90 cm inguruko harlangaitzezko karga hormak fatxadetan eta hormigoizko armatuzko egitura barruan (1985eko eraberritzearen ondorioz). Estalkiko egitura zurezkoa da.
- Alerorako garaiera: 12,2 m (planoetan)
- Eraikinaren garaiera: 16,4 m (kaleko kotatik teilatu gailurrera, 15,51 m)

Eraikuntza gehigarriak.

- Autoarentzako eraikina
- Lanabesetarako txabola
- Bi eraikinak oin bakarrekoak dira eta guztira 36 m<sup>2</sup> inguru dituzte.

Eraispen lanak egiteko, ibilgailuentzako sarbidea San Frantzisko kaletik egitea planteatzen dute, lursailak duen beste sarbidea, Pedro Tolosa pasealekukoa, oso estua delako (memoriako beste atal batean makinaria Pedro Tolosa pasealekutik sartzea proposatzen dute). Dena den gai hau udal teknikariek adostuko dutela aipatzen dute, ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Eraisketa lanak egin aurretik, azpiegituren hartuneak deskonektatuko direla aipatzen du, horretarako hornitzaile bakoitzarekin adostuz, eta eraisketarako argi indarra eta ur hartunea izatea beharrezkoak direla adierazten du. Eraisketa eremua egungo perimetroarekin mugatuko dela aipatzen da, beharreko pasabideak irekiz, eta soilik baimendutako langileak sartzeko aukera jarrita.

Eraisketak hasi aurretik, altzari, barne eta kanpo arotzeriak eta kendu daitezkeen gainerako elementuak kentzea aurreikusten dute.

Eraisketa, bitarteko mekanikoekin goitik behera eta elementuz elementu egitea aurreikusten dute. Eraisketa 0 koto arte egingo dela jasotzen da. Kontutan izanda eraikinaren sotoko solairua kaleko koto baina beherago dagoela, ondorioztatzen da eraisketa amaitutakoan geratuko den orubean desnibel hau geratuko dela. Behin eraisketa amaitutakoan, behar diren segurtasun neurriak hartu beharko dira inork kalterik ez izateko.



Eraisketak egiteko epea 2 astekoa aurreikusten dute.

### **3.5 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37 ERAIKINA**

Aipatu bezala, egungo eraikinari arkitektura aldetik balioa aitortzen zaio, nahiz eta Planeamenduak babesik ez eman. Hori horrela eta eraisketak galera bat dakarrenez, eraikinaren lekukotza behar bezala jasota geratzeko helburuarekin, Ondarearen Proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektuak eraikina deskribatuko du, idatziz, planoz eta argazkiz.

### **3.5 AURREKONTUA**

Aurrekontuaren gainean, aipatu beharrekoa da Hondakin kudeaketa eta Osasun eta Segurtasun atalak aurrekontuko kapitulu gisa agertu behar direla. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, honako hau litzateke, beraz, Egikaritze Materialaren Aurrekontua:

- |                          |                     |
|--------------------------|---------------------|
| • 1 eta 2 kapitulua      | <b>128.135,00 €</b> |
| • Hondakin kudeaketa     | <b>9.501,00 €</b>   |
| • Osasun eta Segurtasuna | <b>5.057,44 €</b>   |
| • <b>GUZTIRA:</b>        | <b>142.693,44 €</b> |

Zuzenketa hau jasoko duen aurrekontua aurkeztu beharko da.

## **4. ONDORIOA**

Ondorioz, aurretik idatzitako guztian oinarrituta, **ALDEKO** txostena idatzi da urbanizazio Proiektuaren 12. eranskinari dagokionez (eraikinaren eraispén proiektua), honako baldintza hauekin:

- Urbanizazio proiektuaren behin betiko onarpena eman ahal izateko, ondorego dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
  - Eraikinaren Ondare proiektua aurkeztu beharko da, egungo eraikinaren lekukotza jasota geratu dadin. Proiektuak eraikina deskribatuko du, idatziz, planoz eta argazkiz.
  - Ur- Agentziaren baimena aurkeztu beharko da.
  - EHAEOK ikus-onetsitako Eraispén Proiektua aurkeztu beharko da. Bertan aurrekontua zuzendu beharko da, eta Hondakin Kudeaketa eta Osasun eta Segurtasun atalak aurrekontuko kapitulu gisa jasoko dira.
- Eraispén obrak egiterakoan:
  - Obra babesteko neurriak hartu beharko dira. Babesteko, babes- edota segurtasun-hesiak jarriko badira, horiek Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen 58. artikulua beteko dute. Obrako itxitura udal teknikariek adostu beharko da, eta



trafikoari edo oinezkoiei eragin diezaieketen proposamenek Udaltzaingoaren onarpena beharko dute.

- Eraispenaren eraginak mugatzeko behar diren neurriak hartu beharko dira, bizilagunek ahalik eta eragozpen gutxien izan ditzaten. Hortaz, obrak gauzatzean, kasu bakoitzean egokitzen jotzen diren neurriak zehaztu eta aplikatuko dira (ureztatzea; xurgatzeko mekanismoak; iragazkiak; biltegirotutako materiala eta garraioko karga estaltzea; egokitzen jotzen den beste edozein), eraispenetako materialen kargako eta garraioko, eta abarreko hauts-isuriak eta partikula solido esekien isuriak gutxitzeko edo ezabatuzeko.
- Eraispenak dirauen bitartean eta eraispenaren ondoren ere, inguruko eraikinek zerbitzuak izatea eta argiteria publikoa egotea bermatu beharko da. Konpainia hornitzaile ezberdinekin adostuko da zer eta nola egingo den zerbitzuak mantentzeko.
- Obra amaitzean, ingurunea garbi eta egoera txukunean geratu beharko da, eta lursaila itxita utziko da, Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzek baimendutako itxitura batez itxita. Proiektuaren arabera, egungo harlangaitzezko horma mantenduko da, baina bestelako itxiturarik jarri behar bada, jarriko den itxitura udal teknikariek adostu beharko da.
- Eraispenena amaitutakoan mantenduko diren elementuak (perimetroko hormak), kalterik izan gabe eta segurtasunez mantentzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira. Lursail barruan ere eraikinaren sotoko desnibelak kalterik ez eragiteko behar diren segurtasun neurriak hartu beharko dira».

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Urbanizazio-proiektuak urbanizazio-obren xehetasun teknikoak zehazten dituzten obra-proiektuak dira. Behar besteko zehaztasunez idatzi behar dira, erredaktorea ez den beste teknikari baten zuzendaritzapean exekutatu ahal izateko.

II. Honako hauek ezartzen dute aplikatu beharreko legeria:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147, 194 eta 196. artikulua.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikulua.

III. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194.3 artikuluekin bat etorriz, urbanizazio-proiektuek honako agiri hauek bildu behar dituzte:

- Obren ezaugarriak deskribatzen dituen memoria.
- Proiektu- eta xehetasun-planoak.
- Neurketak.



- Aurrekontuak.
- Obra eta zerbitzuen baldintzen agiria.
- Segurtasun- eta kalitate-azterlanak, -programak eta -planak.

**IV. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.1 artikulua ezartzen duenez, egikaritze-unitate batean dauden lursailen jabeek honako urbanizazio-karga hauek izango dituzte:**

- Bide-lanak: galtzadak berdintzea, finkatzea eta zolatzea, espaloiak eraikitzea eta zintatzea, mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna errazteko beharrezko obrak barne, eta bide edo espaloiaren lurpean zerbitzuetarako kanalizazioak eraikitzea.
- Saneamendu-obrak: kolektore orokorrak eta partzialak eraikitzea, hartuneak, estoldak, euri-uretarako hustubideak eta araztegiak, egikaritze-unitateari dagokion proportzioan.
- Ur-hornidurako zerbitzu publikoak instalatzeko eta funtzionatzeko obrak, besteak beste, edateko ura eta suteen aurkako ureztatze-ura eta ur-hartuneak etxean banatzeko zerbitzuak, eta energia-hornidurako zerbitzuak. Horien artean daude eroanbidea, banatzeko eraldaketa eta banaketa, bai eta argiteria publikoa, telekomunikazioak eta antolamenduak aurreikusitako beste edozein ere.
- Lorategiak eta zuhaitzak jartzeko obrak, bai eta hiri-altzariak, parkeak, lorategiak eta bide publikoak jartzeko obrak ere.
- Proiektu teknikoak idaztea eta nahitaezko iragarkiak argitaratzea antolamendu xehaturako eta urbanizazio eta birpartzelazio proiektuetarako beharrezkoak diren garapen-plangintzako tresnen administrazio-izapidetzean.
- Urbanizatzeko jarduketaren sustapen- eta kudeaketa-gastuak, urbanizatzailearen enpresa-onura barne, hala badagokio.
- Etxebizitza birkokatze eta jarduerak berriro instalatzeko kalte-ordainak eta gastuak, antolamenduaren egikaritzearen ondorioz eraitsi behar diren eraikin eta eraikuntzei dagozkienak, eskubideen jabe edo titularrei dagozkienak barne, baita antolamenduarekin bateraezinak direlako desagertu behar diren landaketa, obra eta instalazioei dagozkienak ere.
- Gauzatu beharreko hirigintza-antolamenduan edo jarduketa-programan berariaz hala aurreikusten denean, gainera, egikaritze-unitatetik kanpoko azpiegitura-obrak eta zerbitzuak, bai unitatearen sareak udaleko edo udalaz gaindiko sare orokorrekin behar bezala lotzeko, bai horien funtzionaltasuna mantentzeko, bai lursailei ezartzen zaizkien beste edozein karga osagarri jartzeko.
- Eragile urbanizatzaileari eta ondoriozko orubeen jabeek dagozkien urbanizazioa kontserbatzeko gastuak, administrazioak egindako obrak jaso arte.

**V. Urbanizazio-proiektua egiteko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.**

**VI. Prozedura honako hau da:**

- A. Urbanizazio-proiektua izapidetzeko eta onartzeko ekimen pribatua aurkeztu eta Udalak izapidetzeko onartu ondoren, Udaleko zerbitzu teknikoek aurkeztutako proiektuaren berri emango dute.



Kasu honetan, udaleko teknikariek egin dituzte euren aldeko txostenak (AE22020, AM22007, IG2022045), baina baldintzatuak daude egin beharreko aldaketa zein zuzenketetara edota aurkeztu beharreko dokumentazioetara.

- B. Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikularekin bat etorritik, hasierako onespena emango dio urbanizazio-Proiektuari.

Tolosako Udalean, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio hasierako onespena ematea.

- C. Era berean, urbanizazio-proiektua hasieran onetsi ondoren, jendaurrean jarriko da hogei egunez, udaletxeko ediktu-oholean eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean iragarkia jarrita eta lurralde historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 196.2 artikularen arabera. Halaber, eskuragarri egongo da Udalaren egoitza elektronikoan.

Hori guztia urbanizazio-proiektuaren lurralde-eremuan dauden lursailen jabeen zitazio pertsonala eginda.

Jendaurreko erakustaldian, espedienteaz aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, egoki iriztitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzan.

- D. Jendaurreko informazioa amaitutakoan eta alegazioak ikusita, alkateak (kasu honetan, Tokiko Gobernu Batzarra) behin betiko onartuko du urbanizazio-proiektua, hasierako onespeneren ondorengo jendaurreko informazioaren izapidea amaitzen denetik bi hilabeteko epean.

Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, ulertuko da behin betiko onarpena administrazio-isiltasunez eman dela.

- E. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da.

### **AZTERKETA JURIDIKOA**

«13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruaren inguruan aurkeztutako urbanizazio-proiektuak aplikatu beharreko legean ezarritako zehaztapen materialak eta formalak betetzen ditu, beraz, egokia da hasierako onespena ematea.

Hala eta guztiz ere, kontuan izanik udal teknikarien txostenetan (AE22020, AM22007, IG2022045) jasotakoak, beharrezkoa izango da behin betiko onespena eman aurretik proposatutako aldaketak zein zuzenketak urbanizazio-proiektuan jasotzea.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariek egindako txosten teknikoak zein juridikoa, aplikatu beharreko lege-xedapenak eta, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



## ERABAKI DU

**LEHENA.-** HASIERAKO ONESPENA EMATEA «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizazio-proiektuari, baldintza honekin:

**BEHIN BETIKO ONESPENA eman aurretik, zuzendutako dokumentua aurkeztu beharko da aldaketa hauek txertatuta:**

**1. Zuzenketak egitea ur-hornidurari sarean:**

- Ur-aho bat jartzea kale garbiketa lanak eta ureztatze lanak bermatzeko. Kontsorzioak eskatutako ur kontagailua duena.
- Hidrantearen arauen araberako justifikazioa.

**2. Zuzenketak egitea euri-uren sarean:**

- Sareten eta kanaletaren ezaugarri egokiak aukeratzea. Udalak, maiz, arazoak ditu elementu horiek mantentzeko. Batetik, lurra garbitzeko makinek pisu handia dutelako gainazal txikian banatuta, eta horrek, sareta eta kanaletak hondoratzea eragin ohi du. Hori dela eta, sareten materiala eta obrako exekuzioa bereziki zaindu behar dira, beharrezkoa bada zarpa sistemen bitartez elementuak indartuz. Edozein dela ere aukeratutako sistema arazo hori saihestuko duela bermatu behar du.
- Sareta eta kanaleta sistemak garbiketa arazoak eman ohi ditu. Hori kontuan hartuta, hartunetan garbiketa ahalbidetuko duten kutxatilik egitea.
- Zuzentzea kontrako bidean marraztutako bi hartuneak. Huste ahalmenari ez eragiteko norabide berdinean jartzea proposatzen da edo kutxatilan behar besteko alde sortzea kotan, urak husteko eragozpenik izan ez dezan.
- Ur emarien justifikazioa proiektuan jasotzea. Eremuko euri urek, alde batetik plazakoak eta bestetik eraikinetakoak sortutakoak eta horien araberako hodi eta saretak justifikatzea (ur emari horiekin hodian eta kanaletaren huste ahalmena bat datorrela aztertu behar da).

**3. Zuzenketak egitea argiteria sarean:**

- Argi puntuen ezaugarriek inguruan jarritako eredu berdinak edo antzekoak behar dute izan (eremuan eginiko azkeneko urbanizazio lanak San Frantzisko 39 zenbaki aurrean egin dira).
- Argi-azterketa zuzentzeko neurriak hartu behar dira 1890/2008 Errege Dekretua bete dadin (besteak beste, argi puntuen arteko distantzia egokitu eta puntu bakoitzaren ezaugarriak proposatutakoetara egokitzea).



- Argi puntuen banaketan kontuan hartzea San Frantzisko 35 zenbakiko ordezkariak eginiko proposamena.

- Proposatzen diren hiru kanalizazio berriez gain beste bi kanalizazio berri gehitzea, existitzen diren argiteria publikoko zenbait zirkuitu elkarrekin lotu ahal izateko. Horiez gain, gaur egungo kanalizazioa guztiz berritu beharko da REBT jarraituz.

REBT betetzeko, lurreko eroalea isolamendurik gabea denean, gutxienez 2 tubo instalatu behar dira (1 lur eroalearentzat eta 1 eroale isolatuarentzat). Tolosan erreserbako tuboak uzteko joera dagoenez, kanalizazioak 3 tubokoak izatea eskatuko da.

- Aurrekontuan adierazten diren luminarien modeloak ez dira egokiak, deskribapenak zuzendu egin behar dira SF 39-41 ingurunearekin bat etor daitezten.

Era berean, kanalizazioei dagokien partida zuzendu beharko da proposamen berrira egokitu dadin (neurketa berriekin).

#### 4. Zuzenketak egitea lorezaintzan:

- Gutxienez 1x1 m-ko neurria duten loreontziak jartzea.

- Espeziea definitzeko mantenu eta itzal egokia izan dezakeen mota aukeratzea.

- Txorkoen tamainak, gutxienez, 1x1 metrokoa izan behar du.

- Pasealekuan *Acer* motakoak aukeratzea, *Sunset* motakoak pasealekuan, eta 14/16 perimetroa dutenak, eta eraikinen artean *Acer palmatum Seyru* motakoa edo antzeko ezaugarriak dituenak.

#### 5. Aztertzea zerbitzuen arteko koordinazioa:

- Koordinazio zangen ebakidura profilak marraztea, bertan adierazita bertikalean zerbitzu motan arabera jarraitu beharreko ordena eta gutxienerako distantziak: lurzorurekiko, beste zerbitzuekiko, Azterketa horretarako koordinazio zanga marraztu beharko da zerbitzuen multzokatzea edo antolaera aldatzen den neurrian.

Urbanizazio honetan, garrantzi berezia du zerbitzuen arteko gutxiengo distantzia eta ordena errespetatzeak. Bi arrazoi nagusi daude horretarako: lehenengoa, lur azpiko garajearen eta urbanizazio bukatuaren arteko distantzia aldakor eta mugatua, eta bigarrena, San Frantzisko 35eko garajeetarako sarrera handitzeko aukera.

Nahiz eta garajearen definizioa ez den urbanizazio proiektuan jaso, etxebizitzako proiektuan jasoko da, eta eraikitzeko momentuan etxeak eraikitzen hasi aurretik garajea eta zerbitzuak bukatu behar dira. Hori dela eta, koordinazio zangetan kontuan hartu beharrekoa da garajearen eragina distantziak aztertzeko unean.





**6. Aztertzea jarraian jasotzen diren urbanizazio-elementuak, materialak, hiri-altzariak eta eraikuntza-soluzioak.**

- Materialak:

- a) Plazan egoteko sortu nahi den espazioak definizioa zehaztea.
- b) Garajeko arrapalak eremu publikoak edukiko duen eragina indargabetzea. Sortutako malda erabilgarri izan dadin hor erabilitako altzariak espazio hori plazarako berreskuratu behar du.
- c) San Frantzisko 35 zenbakiko atariko sarrera eta urbanizazio berriko lotura aztertu behar da.

- Eraikuntza soluzioak:

- Urbanizazio proiektuak erabilpen gainkarga eta mugatutako eremua jasotzea komeni da.

**7. Urbanizazio-proiektuaren 12. eranskinari (eraikinaren eraispen proiektua) dagokionez:**

- Eraikinaren Ondare proiektua aurkeztu beharko da, egungo eraikinaren lekukotza jasota geratu dadin. Proiektuak eraikina deskribatuko du, idatziz, planoz eta argazkiz.

- EHAEOK ikus-onetsitako Eraispen Proiektua aurkeztu beharko da. Bertan aurrekontua zuzendu beharko da, eta Hondakin Kudeaketa eta Osasun eta Segurtasun atalak aurrekontuko kapitulu bezala jasoko dira.

**BIGARRENA.- Eraispen obrak egiterakoan honakoak bete beharko dira:**

- Obra babesteko neurriak hartu beharko dira. Babesteko, babes- edota segurtasun-hesiak jarriko badira, eta horiek Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen 58. artikulua beteko dute. Obrako itxitura udal teknikariek adostu beharko da, eta trafikoari edo oinezkoei eragin diezaieketen proposamenek Udaltzaingoaren onarpena beharko dute.

- Eraispenaren eraginak mugatzeko behar diren neurriak hartu beharko dira, bizilagunek ahalik eta eragozpen gutxien izan ditzaten. Hortaz, obrak gauzatzean, kasu bakoitzean egokitzat jotzen diren neurriak zehaztu eta aplikatuko dira (ureztatzea; xurgatzeko mekanismoak; iragazkiak; biltegitratutako materiala eta garraioko karga estaltzea; egokitzat jotzen den beste edozein), eraispenetako materialen kargako eta garraioko, eta abarreko hauts-isuriak eta partikula solido esekien isuriak gutxitzeko edo ezabatuzeko.



- Eraispenak dirauen bitartean eta eraispenaren ondoren ere, inguruko eraikinek zerbitzuak izatea eta argiteria publikoa egotea bermatu beharko da. Konpainia hornitzaile ezberdinekin adostuko da zer eta nola egingo den zerbitzuak mantentzeko.

- Obra amaitzerakoan, ingurunea garbi eta egoera txukunean geratu beharko da, eta lursaila itxita utziko da Urbanizazio, Eraikuntza, eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzek baimendutako itxitura baten bidez. Proiektuaren arabera, egungo harlangaitzeko horma mantenduko da, baina bestelako itxiturarik jarri behar bada, jarriko den itxitura udal teknikariek adostu beharko da.

- Eraispenena amaitutakoan mantenduko diren elementuak (perimetroko hormak), kalterik izan gabe eta segurtasunez mantentzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira. Lursail barruan ere eraikinaren sotoko desnibelak kalterik ez eragiteko behar diren segurtasun neurriak hartu beharko dira.

**HIRUGARRENA.** - Ohartaraztea nahitaez Ur-Agentziaren baimena aurkeztu beharko dela.

**LAUGARRENA.** - Jakinarazpena egiten denetik, gehienez ere, 3 hilabeteko epea ezartzea dokumentazioa zuzentzeko.

**BOSGARRENA.** - Urbanizazio Proiektua hogeit egunez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuz, egoki irizitako alegazioak eta iradokizunak aurkez daitezten. Interesdunen eskura egongo da, halaber, udal honetako iragarki-oholean eta egoitza elektronikoan.

**SEIGARRENA.** - Ebazpena interesdunei zein eraginpeko lursailen jabeen zuzenean jakinaraztea.

**4. PRESAKOTZAT JOTZEA ETA ONARTZEA TOLOSAKO PARKE, LORATEGI, BERDEGUNE ETA KALEKO ZUHAITZEN MANTENTZE-LANAK ETA HOBKUNTZAK EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA, ETA HASIERA EMATEA LIZITAZIOARI.**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak eta hobekuntzak egiteko zerbitzua, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat erreserbatua (SPKL 4. xedapen gehigarria).
Unitate sustatzailea	Hirigintza Azpisaila

ESKUE2309947-d2ea-48da-8901-7adcd34330ad



Espedientea	2022SABI0001
-------------	--------------

## II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Hirigintza Azpisaileko teknikariak 2022ko apirilaren 27an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea egin ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2022ko urtarrilaren 25ean, Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren gehigarrian (DO/S S17 40898-2022-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretizko iragarkia.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta mugak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen; beste batzuen artean hauek: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*

## III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea aipatutako Legearen



116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu behar da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedientearen unitate sustatzaileko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio tekniko partikularren plegua.
- Lan-hitzarmena.
- Tolosako etxeko etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen erregelamendua.
- Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren gehigarrian (DO/S S17 40898-2022-ES) argitaratutako lizitazioaren aurretzako iragarkia.
- Azterketa ekonomikoa.
- Administrazio baldintza partikularren plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio-txostena.

Aipatu behar da, udal kontuhartzaileak 2022ko maiatzaren 9an egindako fiskalizazio-txostenaren emaitza **erreparatu etenarazlea** izan zela, udal-aurrekontuaren partidan ez baitzegoen nahiko krediturik kontratuaren betebeharrak asetzeko. Hortaz, 2022ko maiatzaren 19ko 2022/1567 Alkatetza Dekretuaren bitartez onartu zen **aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa**, eta horrek ahalbidetzen du SPKLren 116. artikuluan xedatutakoa betetzea; hau da, kreditu nahikoa eta egokia dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria espedientean egotea lizitazioari hasiera eman ahal izateko.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obra edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:



Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 1.292.897,85 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

PPTO BASE LICITACIÓN				modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA		
538.707,44	651.836,00	1.077.414,88	1.303.672,00	215.482,98	1.292.897,85

Bigarrena.- Kontratazio honetan ez da lotetan banatzea aurreikusi, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak —9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera— erregulazio harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke. Kasu honetan, 22.1 artikuluren b) idatz-zatian xedatzen den kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (215.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzailearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtso berezia jarri ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtso bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, administrazio baldintza partikularren pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatutako legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren,*



*hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

#### IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere: arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “*Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentak, behar bezala arrazoitua*”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, honako honen arabera: “*Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...*”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditente hau **presako tramitazioaren** bidez izapidetuko da, administrazio baldintza partikularren pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

**Presako tramitazioa:** SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, espeditente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, kontratazio-organoak presakotzat jo du. Hori dela eta, espeditentak lehentasuna du izapidetzeko. Hori dela eta, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritz, enpresa lizitatzaileren proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko, HOGEI (20) EGUN NATURALEKO epean, kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Lizitazio hau premiazkoa izatearen arrazoia da ustekabeko arrazoiengatik lizitazioak atzerapen handia izan duela eta egungo kontratua amaitzear dagoela. Hori dela eta, ezinbestekoa da lizitazio hau azkartzea eta epeak laburtzea, zerbitzuan eta bertako egungo langileengan egungo baldintzak ez murrizteko.



## V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin; beraz, gehieneko iraupena bi urtekoa izango da.

Balio zenbatetsia:

Kontratuaren balio zenbatetsia

		PPTO BASE LICITACIÓN		modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA		
538.707,44	651.836,00	1.077.414,88	1.303.672,00	215.482,98	1.292.897,85

**1.292.897,85**

eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta balio zenbatetsia kalkulatzeko, indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialetik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeari atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, ehuneko 20ko aldaketa aurreikusi da.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **651.836**

**euro.** Horietatik 538.707,44 euro printzipalari dagozkio, eta 113.128,56 euro BEZari (% 21).

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2022	6	269.353,72	325.918,00
2023	12	538.707,44	651.836,00
2024	6	269.353,72	325.918,00
modificaciones	20,00 %	215.482,98	
<b>TOTAL</b>	<b>24</b>	<b>1.292.897,85</b>	<b>1.303.672,00</b>

*Aurreikusita dago kontratua 2022ko uztailaren 1ean hasia  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de julio de 2022*

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak **0700.227.07.171.00** udal

aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aipaturiko aurrekontu-partiden kargura aurre egiteko. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

## VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakia gorabehera, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, iritzi delako, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla, lehia printzipioan oinarrituta. Hori, betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz egin beharko da.





Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta administrazio baldintza partikularren pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, eta zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

## **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

## **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; hain zuzen ere, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak.

- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*



Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetza Dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da, kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea; hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera, eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontu-hartzailearen aldeko txostenak ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Presakotzat jotzea eta onartzea Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak eta hobekuntzak egiteko zerbitzuaren kontratua, eta hasiera ematea lizitazioari. Kontratua erreserbatuta dago gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat (SPKLren 4. xedapen gehigarria).

**BIGARRENA.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

Epea: Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin; beraz, gehieneko iraupena bi urtekoa izango da.

Balio zenbatetsia: Kontratuaren balio zenbatetsia **1.292.897,85** eurokoa da SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Balio zenbatetsia kalkulatzeko, indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera, zerbitzuen exekuzio materialetik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeari atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak.

PPTO BASE LICITACIÓN				modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA		
538.707,44	651.836,00	1.077.414,88	1.303.672,00	215.482,98	1.292.897,85

SPKLren 204. artikuluan xedatutakoaren arabera, ehuneko 20ko aldaketa aurreikusi da.



Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: 651.836 euro. Horietatik 538.707,44 euro printzipalari dagozkie, eta 113.128,56 euro BEZari (% 21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak **0700.227.07.171.00** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagozkion zenbatekoak gorde behar dira dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2022	6	269.353,72	325.918,00
2023	12	538.707,44	651.836,00
2024	6	269.353,72	325.918,00
modificaciones	20,00 %	215.482,98	
<b>TOTAL</b>	<b>24</b>	<b>1.292.897,85</b>	<b>1.303.672,00</b>

*Aurreikusita dago kontratua 2022ko uztailaren 1ean hasia  
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de julio de 2022*

**HIRUGARRENA.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren memoria ekonomikoa, administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua.

**LAUGARRENA.-** Espedientea presakotzat jotzearen ondorioz, kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagozkion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profileen eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatuak proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profileen argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**BOSGARRENA.-** Erabaki horiek jakinaraztea Hirigintza Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

## **5. TOLOSAKO ZEZEN PLAZA EGOKITZEKO 4. FASEARI DAGOZKION OBREN KONTRATUA ADJUDIKATZEA.**

### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea	Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseari dagozkion obrak.
Unitate sustatzailea	Hirigintza Saila
Espedientea	2022OASI0004

### **II.- AURREKARIAK**

Lehenak.- Tolosako Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak 2022ko martxoaren 7an egindako txostenean, aipaturiko xedea duen obra-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Bigarrena.- 2022ko apirilaren 5ean, Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseari dagozkion obra-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zion lizitazioari.



Hirugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, SL (B20190674) enpresak bakarrik aurkeztu zuen eskaintza.

Laugarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko maiatzaren 31n, kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, SL (B20190674) SL enpresari esleitzea Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseari dagokion obra-kontratua, honako ezaugarri hauekin:

- Prezioa: nagusia 608.061,07 euro eta BEZa 127.692,82 euro; guztira, 735.753,89 euro.
- Bermea: 6 urte.

### **III.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.
2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea —kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean—, aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 611.712,29 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak oinarri hartuta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoa, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 alkatetza dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da, kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren



ondorioak zehaztea, eta hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

**BIGARRENA.**- IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, SL (B20190674) enpresari esleitzea Tolosako zezen plaza egokitzeko 4. faseari dagokion obra-kontratua, honako ezaugarri hauekin:

- Prezioa: nagusia 608.061,07 euro eta BEZa 127.692,82 euro; guztira, 735.753,89 euro.
- Bermea: 6 urte.

**HIRUGARRENA.**- Xedatzea kontratuaren iraupena 8 hilabetekoa izango dela, zuinetaren egiaztapen akta formalizatzen denetik.

**LAUGARRENA.**- Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa bete beharko duela, inolako erreserbarik gabe.

**BOSGARRENA.**- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunari, Hirigintza Azpisailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

### 6. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

**2022/1707 DEKRETUA: 2022/13 ETA 2022/14 FAKTURA ZERRENDAK.**

Idazkariak 2022/1707 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0002

### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen



21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hauek:

13. zenbaki duena, 1.229,30 eurokoa.

14. zenbaki duena, 730.435,52 eurokoa.

Zerrenda hauetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

**EBAZTEN DU:**

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

13. zenbaki duena, 1.229,30 eurokoa.

14. zenbaki duena, 730.435,52 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,  
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:55ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**



## I ERANSKINA

### Udaleko diruzain lanpostua betetzeko 2022ko lehiaketa arruntaren oinarri espezifikoak

<b>Toki entitatea: TOLOSAKO UDALA</b>
<b>Aurreko urteko abenduaren 31n zenbatekoa zen biztanleria, 2.000 biztanle baino gehiagokoa ala gutxiagokoa? Gehiagokoa</b>
<b>Lanpostuaren izena (1): Diruzaina</b>
<b>Kodea: 2.103</b>
<b>Lanpostuaren azpieskala eta kategoria (2): Kontuhartzaitza- Diruzaintza</b>
<b>Destinoko osagarriaren maila: 24</b>
<b>Osagarri espezifikoaren zenbatekoa: 19.503,54 euro urtean</b>
<b>Hizkuntza eskakizuna: 4</b>
<b>Derrigortasun data pasata al dago? Bai</b>
<b>Lanpostuaren jabeak deialdi hau argitaratu eta ondorengo sei hilabeteetan zehar hartuko al du erretiroa? (3) Ez</b>
<b>Merezimendu espezifikoak (4): Estaturako gaikuntza duten funtzionarioei erreserbatuko lanpostuetan, azpieskala eta kategoria berean, Euskal Autonomi Erkidegoaren barruan: 0,5 puntu urteko (1,5 puntu gehienez).</b>
<b>Merezimendu espezifikoak egiaztatzeko modua: Frogagiriak aurkeztuta</b>
<b>Lehiaketan parte hartzeko gutxieneko puntuak (5):</b>
<b>Oinarri espezifikoetan aurreikusten al da elkarrizketarik egitea? Bai.</b>
<b>Aurreikusten al da zenbatekorik elkarrizketaren ondorioz egin beharreko joan-etorrien gastuak ordaintzeko? Ez</b>
<b>Epaimahaiaren osaketa (6):</b>
<b>Epaimahaiburua: Tolosako Udaleko idazkaria</b>
<b>Epaimahaikideak: Administrazio Orokorreko teknikaria, beste udal bateko gaikuntza nazionalako funtzionarioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako kide bat eta Euskal Autonomia Erkidegoak izendatutako kide bat.</b>
<b>Idazkaria: Giza Baliabideetako teknikaria</b>



## APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoak) sartutako aldaketekin: 92 bis. artikulua eta bigarren xedapen gehigarria.

Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa ezartzeari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua.

TFP/153/2021 Agindua, otsailaren 16koa, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen merezimendu orokorren balorazioa arautzen duena (BOE, 47. zk., 2021eko otsailaren 24koa).

## OHARRAK

(1) 128/2018 Errege Dekretuaren 8., 13. eta 14. artikulua.

(2) 128/2018 Errege Dekretuaren 8., 13. eta 14. artikulua.

(3) Merezimendu espezifikoen balorazioa: %5. **Hau da, 30etik 1,5 puntu (7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarria, 8. zenbakia).**

128/2018 Errege Dekretuaren 34.1 artikulua ezartzen du merezimendu espezifikotzat zer jotzen den. Halaber, artikulua horri jarraikiz, merezimendu espezifikoko horiek lanpostu zerrendan jaso behar dira.

(4) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina, 60. artikulua (zehaztasun gehiago: 128/2018 Errege Dekretua, 39. artikulua).

*«60. artikulua. Hautaketa-organoak.*

*1. Hautaketa-organoak kide anitzekoak izango dira, eta, horien osieran, kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak bete beharko dira; era berean, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko paritatea lortzeko ahalegina egin beharko da.*

*2. Hautespen edo izendapen politikoko langileek, bitarteko funtzionarioek eta behin-behineko langileek ezin izango dute parte hartu hautaketa-organoetan.*

*3. Hautaketa-organoetako kideak norberaren izenean arituko dira beti; ezin izango da inoiz inoren ordezkari edo inoren kontura izan hautaketa-organoetako partaide».*



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022IGBA0014-2022-06-07 Gobernu batzarra akta/2022-06-07 Gobernu